

# MUGIKORDAINKETA\*\*

## Zer da?

Saltokietan txartelarekin bezalaxe mugikorrarekin ordaintzeko aukera ematen duen zerbitzua. NFC antena-dun Android mugikorretarako dago erabilgarri.

## Erabilerraza

### 1.

**Konfiguratu zure telefonoa.** LK Pay aplikazioan eragiketak egiteko txartela aukeratu duzu besterik ez duzu egin behar.

### 2.

**Ordaintzeko unea.**

- Egiatzatu NFC antena piztuta duzula.

- Desblokeatu mugikorra eta hurbildu ordainketa-terminalera. Ordainketa 50 €-tik gorakoa bada, lotutako txartelaren PIN zenbakia sartu beharko duzu saltokiko terminalean. Ordaindu ostean, egindako erosketaren jakinarazpena jasoko duzu mugikorrean.



# LK Pay Zer da?



LABORAL Kutxaren doako aplikazioa, 2 zerbitzu eskaintzen dituena: **Bizum eta Mugikordainketa.**

## 1. [Deskargatu LK Pay aplikazioa.](#)



## 2. Sartzeko, erabili Online Bankaren gakoak (erabiltzailea eta sarbide-gakoa).

## 3. Egin bat aplikazioak eskaintzen dizkizun 2 zerbitzuekin. Nahitaezkoa da LABORAL Kutxak zure mugikor-zenbakia jasota izatea.



# BIZUM\*

## Zer da?

Mugikorraren zenbakiarekin (kontu-zenbakirik gabe) dirua bidali eta eskatzeko aukera ematen duen zerbitzua. Android eta iOS mugikorretarako dago erabilgarri. Ordainbide hori gaituta duten saltokietan mugikorraren bidez ordaintzeko aukera ere ematen du.

## Erabilerraza

### 1.

**Lotu mugikor-zenbakia nahi duzun kontura.**

### 2.

**Egin bizum bat**

- Ireki LK Pay aplikazioa, aukeratu eragiketeta (dirua bidali edo eskatu) eta hautatu pertsona bat edo hainbat zure kontaktuen artean. Bizum daukatenak identifikaturik agertuko dira, eta gainerakoek zerbitzuan alta emateko gonbidapena jasoko dute.

- Idatzi bidali/eskatu nahi duzun zenbatekoa eta kontzeptua.

- Berretsi bidalketa. SMS bat jasoko duzu, sartu beharreko gakoarekin.

# Maiz egiten diren galderak

Badabil banku ezberdinetako bezeroen artean?



Nola jakingo dut nire lagunak Bizum duen ala ez?



Zergatik erabili Mugikordainketa?



# FAQ'S

Bai. Hortaz, edozein kontaktuk berehala jasoko du dirua, edozein bankutako bezeroa izanda ere.

## % bizum

Bizum egiterakoan, Bizum ikonoarekin markatuta agertuko dira zerbitzuari atxikita dauden kontaktuak. Bizumik ez badu, SMS bat bidaliko zaio, bat egiteko gonbidapenarekin. Bizumekin bat egiten duen momentuan bertan jasoko du dirua. Baina, bat egiten ez badu, eragiketeta bertan behera geratuko da denbora bat iragandakoan.

## #MugikorraBadaramazuDiruaDaramazu

Gaur egun, mugikorra gurekin doa alde guztietara; beraz, beti izango duzu edozein ordainketa egiteko aukera, txartela atera gabe. Gainera, ordaintzen duzunaren gaineko kontrol handiagoa izango duzu, PUSH jakinarazpen bat eta SMS mezu bat jasoko baitutuzu mugikorrarekin egiten duzun ordainketa bakoitzeko. Bestalde, txartelaren doako kopia bat eramango duzu mugikorrean.

# FAQ'S

\*Bizum erabiltzeko, mugikorraren zenbakia jasota egon beharko da entitatearen datu-basean, geroago Bizumi atxikitako banku guztiak sortu duten direktorio bakarrean sartzeko. Zure kontaktuen artean dirua bidali eta jaso ahal izateko, kontaktu horiek ere beren entitatearen Bizum aplikazioa deskargatu behar dute.

\*\*Android 4.4 edo geroagoko bertsioa eta NFC teknologia duten gailuekin soilik erabil daiteke LK Pay bidezko Mugikordainketa.